


2021
MAIATZA



KOLOSALA IZANGO DA

Joseba Sarrionandia

Gerra hor dabil edonon oraindik, bizitzaren eta ederra eta samurra den guztiaren aldamenetik, baina laster helduko da zirkoa. Munduaren ordu agoniko hauetan etorriko da, eta kolosala izango da.

Zirkoa Alemaniatik helduko da. Letrero handi honekin: *Cirque Krone*. Eta tren bagoi pilo batekin, elefanteekin, lehoiekin, tximinoekin, pailazoekin, ezpata irensleekin, emakume bizardunekin. Globo saltzaileak ere etorriko dira euren koloretako planetekin. Kalapor-tura iritsiko dira guztiak. Kolosala izango da.

Eta orain alemanek Frantzia okupatu dutenez gero, agian lehenago ailegatuko da.

NARRATIBA

ISBN: 978-84-18252-59-4

ORRIALDEAK: 144

FORMATUA: 12 x 19

PREZIOA: 16,00 €

17.
edizioa





JOSEBA SARRIONANDIA URIBELARREA

Iurretan jaio zen 1958ko apirilaren 13an. Soziologia eta euskal filologia ikasi zituen. *Anaitasuna*, *Ibaizabal* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan argitaratu zituen bere lehen lanak, Pott bandaren kideetako bat zela. Kartzelan egon zen, 1980tik 1985era arte, bafle baten barruan ihes egin zuen arte. Geroztik, erbestean ibili da. 2016an jakin zen Habanan zegoela, eta unibertsitatean euskara eskolak eman ditu. 2021ean Euskal Herrira itzuli da.

Urte guztiotan, iurretarrak obra zabala idatzi du, eta literaturaren bidez egon da gure artean. Genero ia guztiak landu ditu: kronika, ipuin, eleberrri, saiakera, poesia eta gazte literatura.

Txalapartarekin, *Hitzen ondoeza* (1997), *Kolosala izango da* (2003) eta horren itzulpen *Será colosal* (2016) argitaratu ditu.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus